

1997ko UZTAILAREN 22ko URJENTZIZKO BILKURA

Lizartzan, mila bederatzehun eta laurogeitamazazpiko uztailaren hogeitabian, gaueko bederatzia direnean, Alkatea: Jose Antonio Mintegi Arrate; Udalkideak: Ima Zubeldia Luloaga, Juan Manuel Iburguren Etxeberria, Marian Olano Zabala; Ramon Bengoetxea Altuna, Manuel Barriola Tolosa eta Jose Arzadun Egiluz Zinegotziak ez dira agertu, eta ez dute inolako arrazoirik eman; Idazkaria: Ana Jesus Zabala Garmendia, Urjentzizko Bilkuran bildu dira, gai hauek erabili direlarik:

1.- URJENTZIZKO BILKURARAKO ARRAZOIA

Alkateak, hitza harturik dio: Tratatu nahi den gaia benetan garrantzi handi eta presazkoa denez, Bilkura honetan, urjentiz gai hau tratatzea proposatu du.

Proposamena, aho batez onartu da.

2.- ALBACETEN PRESO ZEGOEN JUAN KARLOS HERNANDOREN HILKETARI BURUZ, HERRI BATASUNAREN MOZIOA

Albaceten preso zengoen Juan Karlos Hernandoren hilketarekin beste pausu bat gehiago eman du espainiar Estatuak, Euskal Preso Politikoak suntsitzeko daraman estrategian. Bai Ezker Abertzalea eta bai euskaldun kutsua zuten hainbat ondasun eta pertsonen aurkako eraso faxisten barruan kokatu behar da, indefentsiorik handienez aurkitzen diren Preso Politikoak fisikoki suntsitzeko ere, Estatuak egiten duen ahalegina.

Beti bezala buruhilketa interesatu baten azpian pasatu nahiko dute oraingoan ere, hain zerbitzu ona ematen dien komunikabideen laguntzarekin.

Gizartean Euskal Presoak Euskal Herriratzearen aldeko kontsentsu zabala egonik, eta hainbat manifestaldi, gose greba, kontzentrazio egin arren ere, Madril eta Parisko gobernuak sufrimenduaren areagotzearekin erantzun

du, eta Juan Karlos Hernandoren erahilketarekin daukagu adibiderik garbiena. Ez dute ehundaka kilometrotara eduki eta senitartekoen arriskuarekin jokatzearekin nahikoa, ez dute presoak beraiek aislamendurik bortitzenean edukitzearekin nahikoa, jipoiak burutzearekin nahikoa, azkenik $\frac{3}{4}$ beteta, eta legez kanpoan egon behar zuen bahitu hau, hil egin dute.

Euskal Herriaren askatasuna aldarrikatzeagatik beraien onena ematen ari diren abertzaleak, eta beraiekin batera herri oso baten askatasun egarria zanpatu nahi ditu Estatuak. Hor kokatu behar da Juan Karlos Hernando bahituaren hilketa, eta ziur gaude Juan Karlos "Peli", Katxue, Kurruli eta hainbat Euskal Preso Politiko gurekin izango genituzkeela dispertsioarekin bukatu izan balitz.

Hau horrela, Lizartzako Herri Batasunak, Osoko Udal Bilkurara honako puntu hauek aurkezten ditu, onartuak izan daitezten:

- 1.- Juan Karlos Hernando Euskal Preso Politikoaren hilketa eta bertan PP-ko gobernuak duen lehen mailako ardura, indarririk handienarekin salatzea.
- 2.- Euskal Preso Politikoen kontra diseinaturiko neurri errepresiboekin amaitu dezatela eta dagozkien giza eskubideak errespeta ditzatela esijitzea.
- 3.- Euskal Preso Politiko guztiak orain Euskal Herriratzeko, kondenaren $\frac{3}{4}$ beteta dutenak eta gaixo sendaezinak dituzten guztiak kaleratzeko exijitzea.
- 4.- Erabaki honen berri, Gasteiz eta Iruñako Parlamentuetako Giza Eskubideen Batzordera, Espainiar Gobernuari eta Europako Kontseiluko Giza Eskubideen Batzordera bidaltzea.

Albaceten preso zegoen JUAN KARLOS HERNANDOren hilketari buruz, Herri Batasunak aurkeztu duen mozioa, aztertu eta eztabaidatu ondoren, aho batez onartua izan da.

Eta hitzegiteko beste gairik ez dagoenez, Alkateak, Batzarra amaitutzat eman du, bederatzit'erdia direnean.